

MUko Goi Eskola Politeknikoko ikaslea IV Felix Sopelana sarien irabazlea

2008/06/11

Sarituak

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, Industria-diseinuko Ingeniaritza Teknikoa ikasten duen Oihane Goienetxe ikasleak, "IV Memorial Felix Sopelana" ikerketa tekniko onenaren saria jaso zuen ekainaren 3an. Sari hau urtero urtero Gipuzkoako Peritu eta Industri Ingeniari Teknikoen elkargo ofizialak ematen du.

Gaia aldaketa klimatiko eta energia berriztagarriak zuten 28 lanetatik, Oihanek egindako ekodiseinuko gela baten proiektuak ikerketa tekniko onenaren saria jaso zuen. Saria 2.500 euro, diploma eta garaikurra izan zen.

